

azpiltxo batean
ekarri egistak
ama-biotza».

Maitea laztanduz
jun da mutilla...
Itsu baizen zoro,
esku artean dauz
aizto ta azpilla.

Amaren oixtiko
odol gorria!
Biotza, sarraska,
bai dautso atera.
Errukarria!

Azpillean artuz
errai minbera,
laster baten doa
—gaiztoa aiena!—
neskaren etxera.

Bidean arbela,
bertan oztopoz;
pilpilka zelaian
amaren biotza,
zurbilla osoz.

Bera jasoteko,
seme gaiztoa
lurrera makur da
Oi, begipe daukan
biotz gaxoa!

Uriol gisan, odol
gorri-gorria
darion biotzak,

oraindik be galde
errukarria:
—«Min artu al dozu,
ene semia?»

* * *

Amaren biotz xalo,
nekez aul eziña:
zazpi ezkutu ditun
kutxa erregiña.

ZURE JOKOA

Zugaitik ba-dira
mm-gaizto dabiltzanak;
zurmurrak ba-dira
egazka datozenak.

Mendiak odolez
jarri ete bearko?
Ustez, malkotan
alkarri siñistuko?

Bai siñets, ez siñets
gelditzen gara biok,
eta aidean dira
urtzen zurmur gaiztuok.

Zu, baiña, etzara
esana baizen gaizto;
nagiak usterik
eztau bere buruko.

Zuk ba-dozu fede,
itxaro ba-dozu,

gaztetasun gordiña,
zuk ba-dozu maite-su.

Ezin zeinke ezelan
mendi-bururik jaso,
ezin zeinke zanik
indarrez ito-azo.

Baiña etzaitu zu
orrek arduraz jarten,
ameslari kiñuz
edozer dozu goi tzen.

Burrukan etzara
etsaien aurka saia,
argi-mesedea
ezta zure naia.

Ari mee dardaran
gizona da jausiko:
zuk, burua beean,
dana dozu mendeko.

ANDRAKILLAK

Bai andrakil sail!
Polit garbalak
ziurki zuok:
begiak laru,
lamiñ itxura
dozue danok.

Leiar artean
apatx zagoze,
liraiñik asko;

ta, aurrekaldean,
or zar ta gazte
zazpi begiko.

Ames-loratzan
ziriko jantziz
mingor ta txatxu,
nori sortu ez
mamin artean
goirako txutxu?

Zelako sailla
atze-errekan
goiz jolasteko!
Loriaturik
legokez oso
lore ta iratxo.

Adats gorrian,
sorgin pareko,
begizta bakana;
oin zurietan
auntz ugelezko
oskitxo bana.

Goizez, arratsez
mosu orreitan
argiak jolas:
kurloi kolokak
ur egaztean,
maitezko solas.

Pinpin maiteok:
atsegin zaree,
apatx jarririk.
Baiña... ai ene!,
ezta zuekan
giza-biotzik.